

{ asteari zeharka begira } **Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI**

Paradoxa haurdun dago, dilema dakar sabelean

Hori dauka buruaren biribiltasunak: behin kontu bat sartuta ezin atera ibiltzen garela, autoak biribilgunean bezala, bueltaka eta bueltaka, argi-keinukariei eman gabe. Bazkari ederra izan genuen minkideekin, onddo nahaskia, Beizamako txerrikumea eta Hernaniko hostopila, zintzurak ondo busti, historia zaharrak eta etorkizun berri bat aletu, marabilla. Bizi dugun garaia, gazteekin arazo bat dagoela, aipatu zen; beste sintonia batean daudela; edo gaudela. Ordutik bueltaka, gaur atera eta bota nahi ditut burutazio batzuk, sikiera minkideekin hurrengoan gaiari beste buelta bat emateko.

Paradoxaren sabel oparoan beti dago galdekatzen gaituen dilema. Beti antolatzen dugulako mundua alde kontrajarrietan, bi alde dauzkagulako, ezkerra eta eskuina, gure organo bital asko bikoitzak eta simetrikoak direlako. Harpeetan bizi ginenetik zeri hurbildu eta nondik urrundu ikasiak gaude, desira dugun horri atentzia eta ahalegina bideratu eta desio ez duguna ekiditeko. Paradoxikoki, bi gauzak lotuta daude. Maitatzeko uko egiten jakin behar da, eta alderantziz.

Eta (euskal) politika egoterra berdintsuan dago, beste la egon ezin daitekeelako. Eta bere dilema hori da: ezaguna baina biziaria dugun dispositibo (politiko) ziurgabea premiazkoa den baten orde aldatzeak dauzkan ondorioena. Eta, gero, betikoa: errutina sostengatzen duten aldamioen aldaketa orok sortzen du bertigoa. Eta, betidanik, lehen erreakzioa hori izan ohi da: parapetatu eta ehiza-eremua gordetzea.

Agian politikaren balioa defendatzeak kontserbadore egin gaitu. Eta egian aterpetzeak, antipopular. Akaso, gure ideiekin kontsekuente izateak hauteskundeak galtzera eramango gaitu. Eta, beharbada, gure historia aldarrikatzeak anakronismora kondenatuko gaitu.

Banpiroak uxatzeko aukeratu genituen gurutzeekin tronpatu ginen, apika. Eta aurrerabide sozialak munduaren gure irakurketari dibortzioa eskatu zionean, kiroltasunik gabekoa izan zen, guztiz toxikoa; baliteke, bai. Ez genuen asmatu, zorte txarra izan genuen, agian. Eta horrela zabalduko da, segur aski, gure aukera: beharrei loturik, egia errebelaturik gabe. Beldurra ematen duela? Okerragoa da, agian, arrazoia izatea.

Bizi dugun garaia ez da denbora soil bat, beste bat. Zenbat eta gehiago kostatu hori ulertzen orduan eta zailago garaiarekin sinkronizatzen. Ez dago arrazoirik, adibidez, pentsatzeko egunkariekin izan dezaketen arrisku edo patu bera ez dutela unibertsitateek, sindikatuekin edo alderdi politikoekin izango. Garaikidetasuna gero eta gehiago zabaltzen da, begiramenik gabe. Eta kontuan hartzen ez duena, ez da bakarrik anakroniko geratuko, joko kanpo ere geratuko da.

Eta, gero, betikoa: errutina sostengatzen duten aldamioen aldaketa orok sortzen du bertigoa, eta lehen erreakzio bat: parapetatu eta ehiza-eremua gordetzea

Aurreiritzien kontra, gazteak ez dira politikarekiko uzkurak. “Non demontre daude?” galdetuko dute bostek baino gehiagok. Hori ikusteko, beste era batera begiratu behar da. Tradizionalki borrokatu diren espazioetan ez daude, beren helburuetan ez dago neguko jauregirik. Historian parekorik ez duen elkartzeko modua eman die garaiak (digitala), askotarikoa eta urrutikoa batuz, kontuan hartzeko den lurraldean: planetan. Hala ere, gure neska-mutilak euskaldun dira. Eta izango badira, euskalduntasun hori nola, zein printzipioekin pentsatzen eta baieztatzen dugun gure zoria da, gure zailtasuna. Gure paradoxa propioa. •